

Azkoitian eta Azpeitian ere, txartel berria

Eusko Jaurlaritzak Osasun Txartel elektronikoa ezarriko du bi herrietan

Irene Elorza

Aurretik Getarian egin duen bezala, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak Azkoitian eta Azpeitian ezarriko du Osasun Txartel elektronikoa berria. Guztira, Gipuzkoako bost herri izango dute txartelaren abantailaz baliatzeko aukera.

Eusko Jaurlaritzaren asmoa da 2008. urterako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako milioi bat biztanle inguruk osasun txartel elektronikoa erabiltzea. Herritarrei etxera informazioa helaraziko zaiela azaldu dute Osakidetzako arduradunek.

Basaurin joan den otsailaren 21ean ezarri zuten osasun txartel elektronikoa, eta Osakidetzako arduradunen esanetan, arrakasta handiarekin egin da. Osasun txartel elektronikoa ezarri eta egun gutxira Bizkaiko herri horretako 15.000 biztanlek eskuratu zuten. Gainera, horietako gehienek kiroldegian sartzeko edo beren ogasun datuak begiratzeko, zein errenta aitortpena aurkezteko erabili zuten.

Erabilera askotarako

Osakidetzako ohiko txartelaren bitartez egin daitezkeen gauza berak egin daitezke osasun txartel berriarekin, baina bestelako zereginetarako ere balioko du: liburutegiko edo kiroldegiko txartel bezala ere erabili daiteke, edota errenta aitortpena egiteko ere balio du, Osakidetzako berrikuntza teknologikorako arduradun Josu Garaik adierazi duenez.

Osasun txartel elektronikoa berriak sinadura elektronikoa eskaintzen du eta, hala, internet bidez hainbat eragiketa egin daitezke. Baina interneteko lotura ez duten herritarrek ere txartelaren abantailak telefono bidez erabiltzeko aukera izango dute.

Txartela eskuratu nahi duten herritarrek orain arteko osasun txartela eta nortasun agiria aurkeztu beharko dituzte osasun etxeetan, eta eskaera orria bete. Behin eskaera eginda, 15-20 eguneko epean jaso ahal izango dute txartela, osasun etxean bertan, horretarako beharrezkoa den txartel irakurlearekin batera. Ondoren, erabiltzaile bakoitzari txartela erabili ahal izateko kodea eta deskodetzeko zenbakia zein diren jakinaraziko zaio gutun baten bitartez.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak adierazi duenez, txartelak segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen ditu.